

## **OT BAIMEN BERRIA**

**HELBURUA:** Baimen honek ahalbidetzen du besteren kontura, diru-ordain bat jasoz, Estatu barruan ibilgailu astunekin nahiz arinekin garraiatze-lanak egitea.

MDP motako baimenekin ibilgailu astunekin garraio egin daiteke (3.500 kilo baino gehiagoko BGM).

### **Baldintzak:**

- 1.- Pertsona fisikoa edo juridikoa izatea.
- 2.- Espainiako nazionalitatea edo Europar Batasuneko herrialderen batekoa izatea, edo atzerriartasun-araubideko baimena izatea garraiolari-jarduerarako.
- 3.- Gaitasun profesionalaren baldintza betetzea.
- 4.- Zerga betebeharrak beteta izatea..
- 5.- Lanaren eta gizarte-segurantzaren arloko betebeharrak betetzea.
- 6.- Gaitasun ekonomikoa: 60.000 €.
- 7.- Garraio jarduera egingo den egoitza bat edukitzea.
- 8.- Baliabide hauek dituela frogatzea: bitarteko informatikoak, posta elektronikoa, eta sinadura elektronikoa, ziurtapen zerbitzuen emaile baimendu batek emana.
- 9.- Ordaindu gabeko zehapenik ez izatea.
- 10.- Aholkularitza edo gestoria baten bitartez jardunez gero: gestoriak 001k ordezkari erroldan alta emanda egon behar du.
- 11.-JEZean alta emanda egotearen agiria (840): 756 epigrafea: “Garraioaren jarduera lagungarriak eta osagarriak”, “Garraio-agentzia” jarduera, estatu mailako jarduera esparrua.

## **OT BAIMEN BERRIA- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:**

1. Eskaera, behar bezala beteta.
2. Tasa ordainketa: 23,44 euro. ES65 2095 0611 091061117395 banku kontura egindako transferentziaren ordainagiria.
3. Interesdunaren baimena, agiri jakin batzuk egiaztatzeko Administrazioak ofizioz erregistro publiko zehatz batzuetara sartzea ahalbidetzen dueña.
4. Baimenaren titularraren zinpeko aitortpena, ekipamendu informatikoa eta posta elektronikoa badituela adierazten duena.
5. Gaitasun-agiridunaren/garraio kudeatzailearen zinpeko aitortpena, posta elektronikoa baduela adierazten duena.
6. Baimenaren titularraren izenean emandako sinadura elektronikoaren kopia, eta horren baliozkotasun ziurtagiria.
7. Gaitasun-agiridunaren/garraio kudeatzailearen izenean emandako sinadura elektronikoaren kopia, eta horren baliozkotasun ziurtagiria.
8. Enpresa BEZean alta emanda egotearen agiria (036): "salgaiak errepidez garraiatzeko" jarduera. Honetaz gain, hilabete bateko epea gainditzen bada dokumentu hau aurkeztu zenetik, alta eta baja zentsalen ziurtagiria bidali.
9. Baimenaren titularraren adierazpena zeinean enpresaren jarduera profesionalaren egoitza adierazten den, etxebizitza partikularrekin bat ez badator.
10. Baimenaren titularraren adierazpena zeinean enpresaren jarduera profesionalaren egoitza adierazten den, eta, aldi berean, ikuskaritza etxebizitza horretan sartu ahal izateko baimena ematen den, jarduera etxebizitza partikular batean egiten bada.

## **PERTSONA FISIKOA IZANEZ GERO, HORIETAZ GAIN HONAKO HAUEK:**

1. Baimenaren titularraren identifikazio agiria (NAN, AIZ, iraupen luzeko egoitza-baimena edo aldi baterakoa, lanerako baimena ematen duena).
2. Gaitasun ekonomikoa egiaztatutzat joko da kasu hauetan:  
A) MDP Baimenak dituztenentzat:

12 urte baino gehiagoko ibilgailurik ez badauka, jabetzan edo finantza errentamenduan.

Errentamendu arruntaren kasuan, gutxienez 24 hilabeteko epealdirako kontratua izan beharko du.

Bestela eta baldin eta edukitako ibilgailuekin ezin bada 60.000 eurotako gaitasun ekonomikoa egiaztatu, ondorengo aukeren bidez justifikatu beharko da:

- Finantza entitate batek edo aseguru-etxe batek emandako abala edo bermea.

- Finantza entitate batek egiaztatzea interesdunak kreditua lor dezakeela, dagokion zenbatekoraino.

-Bankuaren ziurtagiri zigilatua, kontu korronteekin edo banku gordailuekin lotutako funtsak eskuratu ditzakeela adierazten duena; esplizituki adieraziko da dagokion kopurua. Ziurtagiriak baliabideen bolumen globala zehaztuko du, edo, bestela, bolumen hori zenbateko jakin bat baino handiagoa dela. Inoiz ere ez da erreferentzia generikorik onartuko, mota honetakoa adibidez..."garraio enpresa bat kudeatzeko baliabide nahikoak ditu...».

B) MDP baimenik EZ duenarentzat, berriz:

Aurretik adierazitako edozein hiru moduren bitartez: abala, funtsak eskuratze ahalmenaren edo kreditua lortzearen bankuaren ziurtagiri zigilatua.

3. Baimenaren titularra Gizarte Segurantzako Autonomoen Erregimenean ("salgaiak errepidez garraiatzeko" jardueran) alta emanda egotearen agiria. Alta-datatik hilabete bateko epea gainditzen bada, lan-bizitza eguneratua bidali.

4. Gaitasun-agiriduna baimenaren titularra ez denean, gaitasun-agiriduna / garraio kudeatzailea Gizarte Segurantzako dagokion erregimenean inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.

## **PERTSONA JURIDIKOA IZANEZ GERO, HORRETAZ GAIN:**

1. Enpresaren IFKren fotokopia.
2. Eraketa-eskriturak, behar bezala erregistratuta; eta, enpresa eratu zenetik hilabete bat baino gehiago igaro bada, dagokion erregistroan eginiko hitzez-hitzezko ziurtagiria.
3. Enpresa Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean alta emanda egotearen agiria. Alta autonomoen erregimenean egiten bada bazkideetakoren baten bidez, enpresako bazkide liburua eta dagokion bazkidearen alta.
4. Eraketa-eskrituretan egiaztatuko da ea enpresak gaitasun ekonomiko nahikoa duen; beste jarduera bat egiten duten enpresek Sozietateen gaineko Zerga aurkeztu behar dute (behar bezala balioztatuta). Halaber, egiaztatuko da enpresaren helburu sozialean garraioa azaltzen dela eta irabazi asmoa duela.
5. Lanbide-gaitasuna: gaitasun-agiriduna / garraio kudeatzailea Gizarte Segurantzako dagokion erregimenean inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.